

ELIZONDO





ELIZONDOKO EGITARAUA



Gaitariak ez dute hutsik eginen herriko plazan txupinazoaren egunean. ONDIKOL

UZTAILAK 24, ORTZIRALEA

12:00etan txupinazoa Olaia Ballarena eta Benito Menniko erabiltzaileen eskutik. **Ondotik** baztan zopak eta karrika dantza konpartsa, txistulari, gaitari eta Tukutuku txarangarekin. Ibilbidea: udaletxea, Jaime Urrutia, Ziga plaza, Txokoto, Braulio Iriarte, Opoka, Santiago karrika eta zahar etxea.

14:00etan gazte bazkaria Merkatuko plazan, **ondotik** gazte jokoak.

16:30ean Kulkiren haurrendako jostetako Kuarteleko zelaian. **18:00etan** erremonte partida Juanjo Atxa Mindegia pilotalekuan, **aldi berean** elektropoteoa Sasix& Puyixen eskutik herrian barna: Herriko etxea, Txokoto, Gloria, Labaien, Eguzkialde, Beti jai, Sobrino eta Mendi.

19:30ean karrika dantza konpartsa, txistulari, gaitari eta bandarekin: Herriko etxea, Jaime Urrutia, Ziga plaza, eliza, Santiago karrika, plaza, Jaime Urrutia, zahar etxea. **20:00etan** salbea elizan Elizondoko Abesbatzarekin eta Recreo bandarekin. **Ondotik** karrika dantza eta erraldioen dantza plazan. **21:00etan** Tukutuku txaranga herrian barna.

22:00etan kontzertuak plazan: Merina Gris, Maruxak, Bisai, Hazar eta DJ Jurru eta Piru. **22:30ean** Lurrikara Gau Elektronikoa Merkatuko zelaian.

UZTAILAK 25, LARUNBATA

09:30ean diana. **10:30ean** karrika dantza: herriko etxea, Jaime Urrutia, plaza eta eliza. **11:00etan** meza nagusia Elizondoko Abesbatzarekin eta Recreo bandarekin. **12:00etan** plazan mutil dantzak, erraldioen dantza bandaren laguntzaz eta luntz herrikoia. **16:30ean** haurren pilota txapelketako finala Juanjo Atxa Mindegia pilotalekuan. **17:00etan** Iruña Dantza Taldearen ikuskizuna plazan, **aldi berean** Nafarroako Herri Herriko Herri Kirol Txapelketa Iriarte pilotalekuan. **18:30ean** pilota jaialdia Juanjo Atxa Mindegia pilotalekuan: Senar eta Ugartemendia, Apezetxea II eta Aldaberen kontra, ondotik Altuna III eta Imaz, Artola eta Rezustaren kontra.

19:00etan musika eskolako txistulariak Ziga plazan. **20:30ean** dantza herrikoia Ziga plazan, **ondotik** mutil dantzak plazan. **22:30ean** Txingones de la Rencle mariatxiak plazan, **ondotik** Olgetan erromeria eta DJ Albondigies.



Erraldoiek egunero dantzatzuko dute. ONDIKOL



Alkatetza taldea Santio egunean. ONDIKOL

Ongi pasa bestak!

943 930 025 | Prudencia Arbide, 2 • IRUN | www.3hiruhome.com

ongi pasa bestak!

mapfre

Etxea, autoa, bizitza, jubilazioa...

948 58 03 76 | 638 72 93 25

Jaime Urrutia, 8 | 31700 ELIZONDO

Ongi pasa bestak!

Autxitxia

GASNATEGIA · QUESERÍA

Bertan egindako ardi gasna Behi eta ahuntz gasnak saltzeko Zenderena Gaztanbera

Jaime Urrutia, 32 • ELIZONDO
624 69 37 47
autxitxia@gmail.com

BAZTAN ZAFORREK SAKOIS DEL BAZTAN

ONGI PASA BESTAK!

Bar Saioa Ostua

HANBURGESAK | BOKATAK
EGUNEKO MENUA
PLATER KONBINTUAK
ENTSALADAK | PINTXOAK

Santiago 96 Behea | ELIZONDO ☎ 948 58 01 94

konpONTtipi
KONPONKETAK, MUNTAIK, TAILER ELEKTRIKO-ELEKTRONIKOA
T +34 948 051 448 konponttipi@gmail.com
M +34 657 714 000 Baztanberri, 1 - Elizondo (Na)

KAKKA MELON
Lure tribua gara
www.kaxkamelon.com Jaime Urrutia, 42 | ELIZONDO
@kaxkamelon 620 480 445

- Errespetuzko hazkuntza
- Generorik gabeko jostailu jasagarriak
- Bihotza irekitzeko liburuak
- Haur eramaile ergonomikoak

ONGI PASA BESTAK!

ARKUPE
Brokolateak
1984

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021 (Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupegozotegia.com

ferreteria
Quevedo
burdindegia

Santiago, 31 ELIZONDO (Nafarroa)
Tel.: 948 580 234
info@ferreteriaquevedo.com
www.ferreteriaquevedo.com



Mus txapelketa goizez eta arratsaldez izanen da aurten, Falfarak elkarteak antolatua. ONDIKOL

UZTAILAK 26, IGANDEA

09:30ean diana Beartzunen. **10:00etan** triatloia Giltxaurdin. **11:00etan** itzulia konpartsarekin: zahar etxea, Santiago karrika, Opoka, Mendinueta, Benito Menni, Merkatzuzelai, Legate, Xalbador, Braulio Iriarte, Txokoto, Santiago, Maria Azpilkueta, lanbide eskola. **Aldi berean** puzgarriak Iriarte pilotalekuan. **14:00etan** kuadrillen bazkaria kuarteleko zelaian. **16:00etan** puzgarriak Iriarte pilotalekuan. **17:00etan** Menditarrek plazan. **18:00etan** poteoa Elektrotzuxfla elektrotzarangarekin elkartez elkarre, parketik abiatuta. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga plazan, **ondotik** mutil dantzak plazan. **23:00etan** kontzertuak plazan: Bisaiak, EZEZEZ eta DJ Muffin.



Giro ederra kuadrillen bazkarian. ONDIKOL

UZTAILAK 27, ASTELEHENA

09:30ean diana. **11:00etan** itzulia konpartsarekin: lanbide eskola, Akullegi, Santiago karrika, Datuzelai, Santiago, Saskaitz plaza, Santiago, Berekoetxea Gotzaia, Paularena, plaza, Pedro Axular, Giltxaurdi, Galartza eta zahar etxea. **11:00etatik 14:00etara** uretako puzgarriak Giltxaurdin. **12:00etan** Recreo bandaren emanaldia elizako belardian. **Aldi berean** Elizondoko XIV. Mus Txapelketaren lehenbiziko kanporaketak Xalbador karrikan. **16:00etan** mus txapelketaren azken kanporaketak toki berean. **16:30etik 19:30era** aurpegi margoketa Ahaztuen plazan, **17:00etan** ginkana plazan eta **ondotik** txokolate hartzea. **17:00etan** Elutxa txaranga herrian barna, **aldi berean** Estampa Navarra jotak zahar etxean. **17:30ean** Elizondoko IV. Boneta Jaurtiketa Txapelketa Giltxaurdi karrikan. **19:00etan** bertso saioa plazan Maddi Ane Txoperena, June Aiestaran, Haira Aizpurua eta Aitor Servierrekin, gai jartzaile Baztango Bertso Eskola eta aurkezlea Ane Fagoaga Izquierdo. **20:30ean** dantza herrikoiak Ziga plazan, **ondotik** mutil dantzak plazan. **22:30ean** kontzertuak plazan: Joana eta Olaia eta ondotik Txiltxoko.



Haurrek ere izanen dute zer egin. ONDIKOL



Urtero bezala, zikiro jatearekin borobilduko dituzte borts besta egunak. ONDIKOL



www.tinkaenergiak.com
tinka@tinkaenergiak.com
Pol. Ind. Zozaia Errota
ZOZAIA
948 452 772
620 969 058



Tratu pertsonala
Zure beharrianak
asetzeko

Konpromisoa
eta segurtasuna

Pertsona erabakigarriak

Ongi
pasa
bestak!

948 45 25 29 · 628 35 71 38
Santiago, 78 - ELIZONDO
jfagoagaleiza@gmail.com

UZTAILAK 28, ASTEARTEA

09:30ean diana. **11:00etan** itzulia konpartsarekin: herriko etxea, Jaime Urrutia, Opoka, Erlategi, Baztanberri, Maurizio eta Felix plaza, Abartan, Xalbador karrika, Giltxaurdi, zahar etxea. **12:30ean** Elutxa txaranga herrian barna. **14:00etan** zikiro jatea Iriarte pilotalekuan (txartelak uztailaren 16an

19:30ean Herriko etxean), **ondotik** poteoa Elutxa txarangarekin: frontoia, Txokoto, Gloria, Saioa, Labaien, Sobrino, Mendi, plaza. **17:30ean** Ameli ipuin kontalaria Merkatuko plazan. **18:00etan** Beñat Mitxelena akordeoilaria plazan. **21:00etan** mutil dantzak eta dantza herrikoiak. **00:00etan** Gaixoa ni eta kalejira Elutxa txarangarekin plazatik abiatuta: Intza, Saioa, Eguzkialde, Beti jai, Mendi, plaza. **Ondotik** DJ Alkape plazan.



ALMACO
Baztan

Besta zoriontsuak pasa!

ALMACO Eraikuntzako materialak

Informazio eta aukera gehiago
www.almacobaztan.com
f i

📍 Errepide nagusia, Elizondo
☎ Tel. 948 580 104

GAMMA

A. ETXEBERRIA
PINTURAK
fatxadak barnealdeak
etxebitzitzak

Ongi pasa bestak!

Akullegi, 6 - 31700 Elizondo
Tel (0034) 607 587 196
etxebeandoni@hotmail.com



asegi asesorías
Zergalan

Kontabilitate zerbitzuak | Zerbitzu fiskalak
Lan-aholkularitza | Aholkularitza juridikoa
Herentzia eta Testamentuak | Datuen babesa
Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa
(langileak eta enpresak)

www.zergalan.es zergalan@asegi.es
www.asegi.com

ELIZONDO - Baztanberri Pl., 6 | T. 948 581 300
BERA - Eztegarra, 22 | T. 948 631 108
DONEZTEBE - Eliza kalea, 22 | T. 948 450 395
LESAKA - Eltzeta, 3 | T. 948 638 077

SANSINENA
GARAJEA
1959

TAILER MEKANIKOA
KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA
ENGRASEAK
ERABILITAKO NEKAZARITZA TRESNERIA
ETA TRAKTOREAK

948 580 406 | Santiago, 37 | ELIZONDO

«Kirol maitagarria da herri kirola, dirurik ez den lekuan sanoak direlako kirola bera eta harremanak»

ANGEL TELLETXEA URRUTIA HERRI KIROL EPAILEA



Angel Telletxea Urrutia. ARGAZKIA: UTZITAKOIA

Leire Mihura ELIZONDO

Badira ohiturak urtez urte eginaz barneratzen direnak eta ohartzera-ko ongi iltzatuta gelditzen direnak. Kasurako, herriko bestek egun aproposak eskaintzen dituzte ohiturak ohitura bihurtu eta giro onean horiek errepikatzeko. Badira urte batzuk dagoeneko Santos Egunean Herri Herriko Herri Kirol Txapelketak geldialdia egiten duela Elizondon eta jendetza biltzen duela Iriarte pilotalekuan. Txapelketa aitzaki hartuta, ohitura ongi markatua dute zenbaitzuk: Santos Egunean familia mahaiaren bueltan bildu eta bazkalondoan herri kirolak ikustera joan. Eta bide batez, herri kirolak direnean pilotalekuaren erdigunean denak kabitzen dira inguruan: haur, gazte, heldu zein etxetako helduenak ere. Txapelketaren bueltan, non gozatua badela erakutsi dute azken urteotan herri kirol arratsaldeak utzitako irudiek: pilotalekuan harmailak jendez beteta eta jende kopuru igualtsua zutik frontoiaren bi aldeetan: ezker eta eskuinean.

Hori horrela, bertze urte batez, Santos Egunean tradizioari segida emateko aukera izanen du nahi duenak, Herri Herriko Herri Kirol Txapelketaren kanporaketa jokatu-ko baita Elizondon, uztailaren 25ean 17:00etan. Eta aurtengoan, Irurita, Txantrea eta Berriozar lehiatuko dira elkarren artean. Herri kirolaz aritu nahi eta, Angel Telletxea Urrutia baztandarrarekin egon gara. Elizondoko bestetan egun markatua du Telletxeak Santos Eguna eta herri kirol txapelketa ere ohitura egi-na du horrenbertze urteren ondotik. Ohitura egi-na eta ohitura «berezia» gainera. Halere, ohiturak ohitura, santioetan herri kirol arratsaldeak diferente bizitzen du Telletxeak, federazioko epaile izanik, epai-mahaian ibiltzen baita aspaldi: «Elizondoko bestetan egin diren guzietan uste dut epaile bezala egon naizela, zenbaitetan santioak direnez, familiarekin bazkaltzera joaten naiz eta ondotik pilotalekura». Eta «gustura» ibiltzen dela dio: «Maite dut bai... bertzela utzia izanen nuen aspaldi».

68 urte ditu Telletxeak eta sortzez Zubietakoa dela kontatu digu: «Aita Saldiaskoa nuen eta ama Zubietakoa, halere, bortsu urte nituenerako Arraiozera etorriak ginen eta ez dut apenas Zubietako oroitzapenik». Arraiozen hazi eta ondotik, behin ezkontuta, duela 47 urte, Elizondora etorri zen bizitzera. Beraz, Elizondon bizi den arraioztarra edota Arraiozen hazia den elizondoarra? Berak aukeran, nahiago izan du hitz bakarrera bo-bobildu eta bere burua «bartzandar» gisa hartu: «Ni bartzandarra naiz peto-petoa, anitz maite dut Baztan eta arras bartzandarra sentitzen naiz».

Gisa berean, herri kirol munduan, «arraioztar» gisa sartu zela erran digu eta kolore laranja berea egin zuela hasmentatik. Duela 38 urte inguru sortu zuten Arraiozko Herri Kirol Taldea, Telletxeak 30 bat urte zituenen: «Afizio gehiena futbolera nuen, Baztanen aritu nintzen urte batzuek eta ondotik Arraiozen herri kirol taldea atera behar genuela hasi ginen. Garai hartan federazioan lehendakari bezala sartua zen Joxelu Retegi eta berarekin hasi ginen Arraiozen». Gogora ekarri du Rete-gik bultzatuta hasi zela dena: «*Bah, atra bar diagu ekipua aitzeko herriz herri herri kirolian ta sokatiran ta hola*», eta helabeharrez, erran eta egin horrelaxe izan zen: «Atera genuen taldea eta Arraiozkoekin sokatiran aritu nintzen hiruzpalau urtez edo». Konpetitzen hor hasi bazen ere, herri kirolak «betitik» gustuko izan dituela aipatu digu eta lehengo garaietaz oroitu da, bere aita zena ere gogora ekarrita: «Aita ere arras afizionatua nuen aizkora-ra eta gazte gaztetik eramaten nuen Tolosara apustuak eta ikustera,

hortaz, afizioa ttikitatik heldu zait, etxetik».

Arraioztarrekin urte batzuek ari-tu zen txapelketetan eta «kontent». Alta, beretako «garai zailak» zirela esplikatu digu, eta etxeko kontuak eta bertzelakoak tarteko, utzi behar izan zuela erranez segitu dio azalpenari: «Berandu hasi ginen eta ordurako banuen familia, lan ere etxetik kanpo egiten nuen ia 21:00ak arte, ondotik entrenatzera joan beharra nuen, eta gogorra egiten zitzaidan». Ate bat hesteak, ordea, leiho bat irekitzea ekar dezake: «Uztea erabaki nuen eta handik eta hemendik, gure Joxelu hor zebilen federazioan sartuta eta «*Bai, behar diagu epailia, ez dauk epaileik Nafarroan...*», Nik ezetz erraten nion, ezetz eta ezetz, baina badirudi arras erraza naizela konbentzitzeko eta horrela, duela 35 urte inguru hasi nintzen epaile lanetan».

Ordutik, ia gelditu gabe ibili dela dio; hasmentan Nafarroako epaile bakarrik eta, egun, Euskal Herrikoa ere bai. Urte anitz dira hortan dabilela eta «gustura» aritzen dela dio gainera; herri kirola, kirol moduan «maitagarria» dela irizten dio: «Dirurik ez den lekuan kirolak sanoak dira, badakizu, afera txarrak dirua tartean sartzen denean ailegatzan dira. Baina herri kirolak hori ez duenez, hortxe ibiltzen gara, eta pentsatzen dut hor gaudenak hor gaudela maite dugulako». Batik bat, kirol sanoa dela erraten badu, harremanak ere sanoak direlako erraten du: «Fin batean harreman ona dugulako, e! Herri kirolak hori du ona, eta harremana sanoa denean gustura ibiltzen zara. Hainbertze urtetan ez dut inoiz afera txarrik



mañonea
ASEGURUAK AGENTZIA

Braulio Iriarte, 9 | ELIZONDO
T. 948 58 11 32 - 606 89 68 43
info@mainonea.com

Öngi pasa bestak!

ASEGURUAK - AGENTZIA

www.mañonea.com

Barride KOMUNITATEEN KUDEAKETA (administrazioa, kontuak, obra...).

MOTA GUZTETAKO ASEGURUAK

Kontable, zerga, lan eta juridiko **AHOLKULARITZA**

IBILGAILUEN TRANSFERENTZIAK

INMOBILIARIA



Carlos Garaikoetxea Etxenike ABOKATUA

DIBORTZIOAK | HERENTZIAK
ALOKAIRUAK | ALKOHOLEMIAK

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO



Juli Ostaturia

Gosariak eta bazkariak egunero,
afariak asteburu eta jaiegunetan.

Etxeko Janaria

Giltxaurdi, 6 | ELIZONDO

948 452 462



material elektrikoak

ongi pasa bestak!

Tel. 948 581 261
Santiago, 83 Ind. · ELIZONDO
elicitxe@elicitxe.es

www.elicitxe.es

**ELEK
3ERRI**

INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK



**EGUZKI PLAKEN
INSTALAZIOA**

646854825

Santiago 118, Elizondo (Na) · elekkerri@gmail.com

Ongi
pasa
bestak!

eduki; tirabirak bai, beti badirelako horrelakoak edonon, baina afera txarrik ez, eta partez, hortaz segitzen dut». Soka muturra heldu eta tiraka hasiz gero, harreman sano horrek giro onari laguntzen diola bistakoa da, eta, honezkero, ezaguna du Telletxeak herri kirolen parte bihurtu den plaza giroa: «Giro ona izaten da Elizondoko bestetan herri kirol arratsalde horretan ere, ni epaile lanetan gustura ibiltzen naiz eta pentsatzen dut konpetitzen aritzen diren taldeak eta kirolari guziak kontent aritzen direla». Ez hori bakarrik: «Hainbertze jende elkartzten da». Eta urtero frontoia betetzen dela ikusita, bere iduriko, «galdu behar ez den gauza bat da».

Ikusle afizionatuak anitz diren bezala, kirolari mordoa ere dagoela erran digu, «herri kirola momentu onean» dagoela ondorioztuz. Gauzak horrela eta urte luze hauetan ikusitakoak ikusita, mintzatu den bitartean kontent dela sumatzen da: «Beti izaten ditu bereak baina orain momentu on batean dago nire ustetan. Kirolari kopuruan anitz igan

da, emakume pila bat badira gaur egun; duela urte batzuk emakumeei dagokionez apal xamar zegoen, baina orain emakume anitz dira denetan aritzen direnak: harriak goratzen, aizkoran, txingetan, sokatiran eta edozein frogetan ere. Eta nik uste dut baietz, ongi dagoela herri kirolen kontua»

Etxekoak: Telletxeak


Aritzen diren horien artean gainera, etxekoak ere baditu Telletxeak: bai semea eta baita bilobak ere. Hori horrela, aurpegiz aurpegi maiz harrapatu ohi dira plazetan: «Niretzako plazer handia da. Lehenbizi epaile seme-alabei egin nien: bai semeari eta baita alabari ere, eta orain bilobei egitea ere plazer hutsa da. Arras kontent nago haiek hor aritzeaz eta urtez urte hor segitzen dutela ikusteaz». Bera epaile eta haiek lehiatzen aritzen dira, bakoitz berera, baina modu berean etxeko guziak elkarrekin: Telletxea guziak plazan. Eta erran digunez, aita gisa lehenbizi eta aitaxi gisa orain, zera saiatu da erakusten:



Euskal Herriko Herri Kirol Txapelketa 2011n, epaileen ilaran hirugarrena Angel. UTZITAKOA

lino plaza arkitektura

Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!



lino plaza y asociados, s.l.p. | jaimé urrutia 36 - 31700 elizondo (nafarroa) | telf. 948 58 18 02 | fax. 948 58 14 12 | e-mail. info@linoplaza.com | web. www.linoplaza.com



Ezkerrean Julen Urrutia, Angelen biloba, aizkoran eta giblean Angel epaile lanetan. UTZITAKOA

«Erraten diet bakoitzak berak ahal duena egin beharra duela, ez zaiola inori eskatu behar egin ezin duena; orduan beti emateko ahal dutena eta saiatzeko ongi egiten. Galdu edo irabazi? Hemen denek nahi dugu irabazi, baina betek irabazteko bertze batek beharra du galdu, orduan, galtzen ere jakin beharra dela. Erraten diet ez pentsatzeko bakarrik irabazten eta irabazten, parte hartzea ere zapela kentzekoa dela».

Aurtengo santioiei begira, «pentsatzen dut Elizondon epaile ariko naizela, orain arte urtero aritu baina, halere, oraino ez dakit, federaziotik igortzen baitigute hori».

Hala izanez gero, Arraioz kanporaketarako sailkatu ez izanagatik, etxekoak plaza barnean edukiko ez dituela jakitun da. Halere, mahaia-aren bueltan bilduko direla ziurtatu digu: «Bestak geihen bat familia giroan, etxekoekin bazkari batzuk, ondotik bertze egunen batean lagunekin afariren bat». «Bestak gure adinarekin diferente egiten ditugu, ez dira 20 urtetan bezala egiten», gaineratu du irriz. Herri kirolera bueltatuz, ia lau hamarraldi ez ditu aski izan eta «ahal duen bitartean» hortxe segituko duela ziurtatu du segurtasun osoz. «Egiten dudana disfrutatzen dut, egia erran».

suteia-zaldain
instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK



Santiago, 71 | **ELIZONDO**
M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK



Kanpoko fatxadetan guztiz integratuak. Portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokitua.



3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.



EZ ZAITEZTE KEZKATU!

Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.



ELIZONDO

Foru plaza, 3
ELIZONDO
T. 948 580 005



Astelehenetik
larunbatera

09:00-21:00

BEAARRAINDEGIA

esarte



Etxera eramateko zerbitzua



Maite Iriarte Yanci
ASEGURUAU ETA INBERTSIOAK
HURBILTASUNA ETA KONFIANTZA



Besta zoriontsuak opa dizkizuegu!!

Santiago, 72 | ELIZONDO
T. 948 58 05 04 | 669 32 63 33
oc.elizondo@generalimediadores.es

«Espero dugu triatloia bestetan tradizio bihurtzea eta urteroko ohitura gisa gelditzea»

JAIONE ARNAL ARRIJURIA BESTETAKO TRIATLOIAREN ANTOLATZAILEA



Jaione Arnal Arrijuria, berak ere egiten ditu triatloiak. ARGAZKIA: UTZITAKOA

Goizalde ostatua




Ongi pasa bestak!!

Pintxoak
Eguneko menua
Karta
Plater konbinatuak
Ogitarteak
Entsaladak
Hanburgesak
Errazioak



Jaime Urrutia 8 - ELIZONDO - Tel.: +34 948 58 13 34 - goizaldeostatua.com

Leire Mihura ELIZONDO

Uztailaren 26a, Elizondoko besten hirugarren eguna, berrikuntzekin heldu da aurten, hain zuzen ere, kirolari espazio gehiago eskainiko dion berrikuntzekin. Izan ere, haur eta gazteen eguna da besten hirugarrena eta gaztetxoek «zerbait falta» zutela ikusita, triatloia antolatu dute lehenbizikoz. «Gogotsu» daude eta, oro har, «harrera ona» izan duela kontatu digu Jaione Ar-

nal Arrijuria antolatzaileetako batek. Are gehiago, «kontent» agertu da, eta kontent baino gehiago «motibatuta». «Motibatuta», hori izan da berak erabili duen hitza eta motibazioa agerikoa zaiola erran dezakegu guk, aste guttiren faltan, prestatzen ari diren triatloiaz gogotsu aritu baitzaigu solasean.

38 urteko elizondoarra da Jaione Arnal Arrijuria: «Energia handikoa». Elizondon hazi eta hezia da, eta gaur

ONGI PASA BESTAK!!



LABORRA ARKITEKTOAK
- Gabriel & Ines -
www.laborra.com
gabriel@laborra.com
Santiago 66, 1º ELIZONDO 948.580.122




arteka
arkitektura arquitectura
Tel. 948580610 Plaza. Dr. Balda 1-1. A
info@artekabaztan.com 31700. Elizondo Baztan
www.artekabaztan.com

egun ere herrian bertan aritzen da lanean, Giltxaurdi Udal Kirol Instalazioan. Urte batzuk dira dagoneko Giltxaurdin dabilela: «Betitik gustatu izan zait kirola egitea eta ondotik entrenatzaile izateko goi maila ikastea erabaki nuen; sala barneko kirol saioak emateko, igeriketa saioak ere bai... Sorosle titulu ere atera nuen eta hortik aitzinera nire kontu lanean hasi nintzen. Lehenbizian autonomo gisa ibiltzen nintzen herriz herri eskualdean barna, hori utzi nuen eta Giltxaurdin hasi nintzen». Giltxaurdin hasi zenean ere, herriz herri ibiltzen segitu zuela kontatu digu: «Herriz herriko zerbitzua ematen hasi ginen, jendea herritik ez mugiarazteko polita iduritu zitzaigun ideia». Dena den, azkenean bakarrik instalaziora mugatu behar izan zituzten jarduerak eta «orain bakarrik Giltxaurdin aritzen naiz».

«Betitik saltsa anitzetan»

Kirolarekin loturan, «betitik saltsa anitzetan» sartuta egon dela kontatu digu, eta maite du; maite du «kirola egitea» zein «ingurukoak hura egitera animatzea» ere bai. Bien artean zein nahiago duen aukeratzea zaila suertatuko litzaioke, baina balantzan paratuz gero, akaso bigarrenak irabaziko luke? Edo ez, berak ere ez du aukeratzeko saiakera handirik egin. Halere, balantza alde

batera zein bertzera joan, argi duena da «jendea motibatzeak» motibatzen duela bera eta horretarako aproposa duela lana: «Energia handia dut eta mugitzeko beharra dut, lan hau eskertzen dut».

Bere egunerokoaz aritu da eta argitzen duenetik iluntzen duen arte, ia geldirik egoteko astirik ez duela dio, ikastaroak eta bertze, hemendik harat ibiltzen baita egun osoa: «Beti jende helduagoarekin hasten gara, arrakasta handia izan du zahartze aktibo horrek eta 65 urtetik goitiko jendearekin bi talde osatu behar izan genituen ikasturte honetan. Goizak lasaigoak ditut, pilastes eta bertzelakoetan aritzen gara. Halere, ondotik, arratsaldetan, gaueko 22:00ak arte klaseak ematen ditut ia egunero: igeriketa, pilates, triatlloi eskola, dantza saioak...».

Gisa berean, helduekin bai, baina haur eta gazteekin ere «ikaragarri pila» gozatzen duela erran digu: «Jende artean disfrutatzen dut, sozialki behar dut jendearekin egon. Berdin zait helduak, haur ttikiak, gazteak... jendea motibatu eta tarte batez gustura egotea baino ez da behar». Tarte hori haize freskoa bezala sentitu dezakeelako batek: «Bada jendea akaso gurera ez dela bakarrik kirola egiteagatik heldu, baizik eta etxetik ateratzeagatik, jendearekin egoteagatik... eta osasun mentalerako ongi heldu zaielako».



BRIKO BAZTAN, SL
Eraberritzeak
Obrak | Pintura
T. 608 016 052 | San Andres, 66 · NARBARTE

Albaitaritza
ZURE NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZARAKO DENDA ESPEZIALIZATUA

Materiala Botika Elikadura

- Osagarri mineralak
- Bildots eta aratxeendako esnea
- Xaboi eta desinfektatzaileak

948 580 980 www.albaitaritza.com

Albaitack
ZURE BASERRIRAKO MATERIAL ETA HORNIGAIAK

Zurekin, egunero!

Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuk

948 506 169 www.albaitack.com

ALBAIKIDE
ANIMALIEN ONGIZATERAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUAK

Animalien osasuna eta zaintza
Zaintza eta osagarriak
Elikadura espezializatua
Aholkularitza eta arreta hurbila

902 169 169 www.albaikide.com

Zure baserria, gure konpromisoa

ongi pasa bestak!
Dendako artikuluen likidazioa
deskontu handiak

H. LOPEZ
Erreforma integralak eta gremioen koordinazioa

Aire girotua • Tximiniak • Igerilekuen salmenta
Gas, gasolio eta biomasazko galdara eta berogailuak
Zeramika eta bainugelako altzarien salmenta

Santiago, 93 ELIZONDO - T. 948 452 126
info@honestolopez.com
www.honestolopez.com

"LA BAZTANESA" S.A.

BIDAIARIEN ZERBITZURA

Elizondo | Donostia | Iruña | Irún | Hondarribia | Doneztebe...

T. 948 580 129 | *Ongi pasa bestak!*

www.labaztanesa.com

Gureauto

TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea,
mantentze lanak...Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

GORA SANTIOAK!

Allianz

M. Petirena Aseguruak / Inbertsioak
Jaime Urrutia 41 31700 ELIZONDO

INTZA TABERNA

BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK

Mendi

ostatua

Eguneko menua · Bokatak
Pintxoak · Razioak · PizakDeitu eta egin erreserba!
Goizeko 8etatik gauerdirarte
T. 948 580 313

Sokak ez baitu korapilo bakarra eta kirolarekin osasun fisikoaz aparte, gehiago ere zaindu daitekeelako: «Uste dut osasun mentala zaintzeko jendea geroz eta kirol gehiago egiten hasi dela».

Hori horrela, jarduera fisikoa egiteko ohitura jendartean geroz eta gehiago hedatzen eta errotzen ari den heinean, kateak segitu egiten du eta ohitura belaunaldiz belaunaldi igarotzen ari dela nabaria da: «Kirola geroz eta gehiago barneratzen ari dira haurrak haien bizitza eta errutinetan». Gainera, eskaintza diferentea edukitzeak kirola egiteko gogoari mesede egin diezaioke: «Egiteko gehiago ditugu orain hemen inguruan, beti izan ditugu futbola esku pilota eta eskubaloia eta orain baditugu triatlói eskola, kirol jolasak... Hasi gara bertze kirol batzuekin gehiago mugitzen eta egia erran haurrak ederki moldatzen ari dira denetara». Eta ez hori bakarrik: umeak gorputza mugitzera ohituta diren bezala, orain gorputza mugitzea eskatu ere egiten dutela aipatu digu; bestetan triatlói sartzeari haien ideia izan zela arrazoituta. «Eskolara hurbildu eta beraiei galdetu genien ea zer nahi zuten Elizondoko bestetarako: triatlói nahi zutelako erran zuten».

Hala eta guztiz ere, eskaera horrek badu aitzindari bat. Haurrek triatlói egin nahi izana ez da kasualitate hutsa izan; Giltxaurdin triatlói eskola martxan paratu baitzuten pasa den urrian, eta «arrakastatsua» izan baita lehen ikasturtea: 7 eta 13 urte bitarteko 14 haurrek parte hartu dute. Bidenabar, lehen aldia nola iragan den galdetuta, «arras ongi» joan dela aipatu digu Arnalek. Bera

izan da irakaslea eta «martxa onean» aritu dira. «Astean hiru entrenamendu izaten genituen: bat lasterka, bertzea bizikletan eta bertze bat igerian. Otsailean hasi ziren duatlóiak eta gurek lasterketa pare bat egin zituzten; ekainetik aitzinera hasi dira triatlóiak eta zenbaitzuek parte hartu dute dagoeneko».

Bera entrenatzaile lanetan aritu bada ere, ekimena Vitxori Juanikotenak (1991) abiarazi zuela esplika-tu digu. «Vitxori izan da dena bul-tzatu duena eta ni beti bere ondoan».

Nor dugu Vitxori?

Vitxori Juanikotena sortzez mexi-
karra da, baina partez baztandarra ere bada, aita, German, elizondarra duelako. Betitik etorri izan da Baztanera eta, gaur-gaurkoz, Sunbillan bizi da. Arnalek kontatu digunez, «laguna» du Juanikotena eta mires-menez mintzatu da beretako: «Triatleta profesionala izan da urte luzez, eta ona gainera». Bide batez, Juanikotenak Lideresas eta Amazonas programak abiarazi zituen pasa den urtean, emakumeak kirol mundura eta, kasurako, triatlóiara ere hurbiltzeko asmoz. Espainiako eta Nafarroako Triatlói Federazioarekin batera martxan jarritako programa da hori; Lideresas 18 urtetik goitiko emakumei bideratua, eta Amazonas, ordea, 17 urtetik beheitkoei. Hurrenez hurren, Juanikotenak ekimena etxera hurbildu nahi izan zuen, eta proiektu hartatik sortu zen Baztango Triatlói Eskola ere bai, Iruñeko Saltoki-Trikideak eskolarekin elkarlanean. Horrez gain, ekimena are gehiago hauspotzeko, bailarako ikastetxeetan barna ere ibili izan da hitzaldiak ematen eta



Baztango Triatlói Eskolako haurrak eta Jaione Arnal erdian. UTZITAKOA



Ikasturteko hondar egunean haur eta gurasoen arteko triatloia egin zuten. UTZITAKOA

haurrak triatloia probatzera animatzen.

Haur zein helduekin hitzorduak antolatzen ditu eta Arnalek horietan parte hartzen duela aipatu digu, arras «aberasgarriak» direla iritzita: «Lideresas ekimenean ibiltzen naiz ni, eta Baztanen bagara 33 neska hilabetea behin korrika egiteko gelditzen garenak».

Gauzak horrela, badirudi azken urtean triatloia saretzen hasia dela Baztanen eta udan ere saretzen segituko duela. Nola edo hala, besta egunetan ere kirolak «leku ona» hartu dezake Arnalen iduriko eta horrelaxe segitu du dio azalpenari: «Esku pilota izaten dugu urtero eta arrakasta izaten du, oraingoan bertze modu batean sartu dugu kirola, haurrei zuzendua gainera».

Egitasmoa adin guzietakoek parte hartu ahal izateko antolatu dute eta

aitzindu duenez, «jende anitz apuntatzen ari da, eskolakoak ez direnak ere bai. Azkenekoz begiratu nuenean 77 ziren izena eman zutenak eta gehiago espero ditugu». Parte hartzaile guziei aseguruia egingen dietela jakinarazi du eta probak «ahalik eta hobekien» egokitzen saiatu direla gaineratu du. Bertzetik, herriarren jarrera txalotzekoa dela erran digu eta ilusioa nabaria du: «Jendea arras animatuta ikusten dut eta antolakuntza partetik ere arras ongi, herritarrek bolondres bezala apuntatu dira laguntzeko eta arras polita geldituko dela uste dut».

Egitasmoa aitzinetik harrera «hain ona» izaten ari dela ikusita, etorkizunera begira zer nahiko lukeen galdetu digu eta horrelaxe erantzun digu: «Espero dugu hau Elizondoko bestetan tradizio bihurtzea eta urteroko ohitura gisa gelditzea».

hiru ostakua

BERTAN JAN edo ERAMATEKO
Deskargatu gure APPa eta egin
zure eskaera



... betikoa baina ezberdina

ONGI PASA BESTAK!

Kaxulak,
plater konbinatuak,
bokatak, pizzak,
hanburgesak,
ensaladak, fritoak...

Etorri eta dastatu gure
berezitasunak!

Baztan Berri 7 B | ELIZONDO | T 948 581 219

ongi pasa
bestak!

BELZUNEGUI
1901etik



Emakume, gizonetako zein gazteentzako:

Ospakizun berezietarako jantziak

Osagarriak: gerrikoak, belarritakoak,
poltsak, lepokoak...

Oherako arropa eta bertzelako salgaiak



948 58 00 56 | Jaime Urrutia, 44 | ELIZONDO



BB BLOK BAT
TALLERES

Driver
NEUMÁTICOS Y SERVICIOS



Pneumatikoak



Norabide-
lerrokatzea



Mantenimendua



Frenoak



Bateriak

www.biokbat.com | ELIZONDO | Tel. (0034) 948 580 898



«Elizondoko bestetako kartela diseinatzea amets bat betetzea izan da niretako»

ALAZNE GOÑI MATEO BESTETAKO KARTELAREN DISEINATZAILEA



Diseinu grafikoko ikasketak Madrilén egin ditu Alazne Goñi elizondoarrak. R. OSKARIZ

R. Oskariz ELIZONDO

Irribarretsu eta ilusio puntu batekin aurkeztu du bere burua Alazne Goñi Mateok: «23 urteko diseinatzaile grafiko elizondoarra, musika, diseinua eta animaliak gustuko dituen». Herriko bestak aunitz maite ditu, eta aurtengoak bereziki apartekoak izanen dira berarendako, kartela diseinatu baitu.

Diseinurako grina

Diseinurako zaletasuna nondik heldu zaion galdetzean, ia kasualitatez sortu zela dirudi: «Lekarozen Batxilergoan diseinu grafikoko irakasgaia izan genuen. Klaseak hasi aitzinetik ez nekien ezta zer erran nahi zuen 'grafiko' hitzak, eta asperu eginen nintzela pentsatzen nuen. Baina klaseetan hastean aunitz gustatu zitzaidan, sormenaren bidez arazoei konponbidea ematen ikasten genuelako. Nik Psikologia ikasi nahi nuen, baina orduan iritziz aldatu nuen eta Diseinu grafikoa egitea erabaki nuen».

Nafarroan ez zuen aukera handirik nahi zuena ikasteko, eta Madrilera joatea erabaki zuen. «Nire lehengusu batek ESNE diseinu eskolan (gaur egun UDIT izena duena) ikasi zuen, eta berak eman zidan horren berri. Aukera ikusita, aunitz pentsatu gabe joan nintzen».

«Uste baino gogorrago»

Diseinu grafikoko ikasketak «aunitz gustatu zitzaizkidan». Aitortu duenez, «uste nuela erraza izanen zela eta denbora libre aunitz izanen nuela, baina ez, arras gogorra izan zen; entregatzeko lan aunitz izaten genituen eta irakasleak arras zorrotzak ziren». Hala ere, ez da erabakiaz damutzen: «horrek lagundu ninduen diseinatzaile hobea bihurtzen».

Ikasketak akituta, «urte oso batez enpresa batean lan egiten aritu nintzen, eta orduan erabaki nuen gehiago ikasi nahi nuela, programazio aldetik batez ere». Hori dela eta, «aurten Diseinu digitala eta UX/UI (User Experience eta User Interface

ingelesez) masterra egin dut. Erabaki arras ona izan da. Irakasleak eta klasekideak arras hurbilekoak izan dira eta gustura egon naiz». Orain, berriz, «praktikaldia dut eta enpresa batean hartu naute abendura arte».

Hiri handirat

Duela zazpi urte joan zen Madrilerat bizitzera eta bertan dago geroztik. Azaldu duenez, «han bizitza arras diferentea da, herri ttiki batetik hiri handi batera aldaketa handia dela-koz».

Hasmentan «gogorra» izan bazen ere, «urteak pasata errazago izan da», eta alde ona ere ikusi dio; «Madrilen Elizondon baino aukera gehiago ditut aisialdirako: antzerkia, zinema, inguruko herriak, kontzertuak, mendia...».

Baina, bertze aldetik, «Elizondo lasaia goa da, dena hurbilago dago eta naturarekin dugun harremana estuagoa da». Hori dela eta, «epe luzera Nafarrora bueltatu nahiko nuke, etxetik hurbil. Badakit lan aldetik Madrilen aukera gehiago izanen ditudala diseinuarekin, baina bizi kalitatea aunitzez hobea da hemen».

«Txupinazoa emozio handiz bizitzen dut eta lehenbiziko eguna denez, jendea kontent eta gogotsu egoten da»

Urteko egunik hoberenak

Elizondorat aukera duenean etortzen baldin bada ere, argi du santioak ez dituela deusengatik galduko: «ikaragarri gustatzen zaizkit Elizondoko bestak, niretako hoberenak dira, bertze edozein herritakoak baino hobe». Aurten ere «ahal badut lehenbiziko egunerako bueltatu nahi dut». Izan ere, «txupinazoa emozio handiz bizitzen dut eta lehenbiziko eguna denez, jendea kontent eta gogotsu egoten da». Guttien gustatzen zaion egunaz galdetean, berriz, argi du: «azkena. Gaixoa ni momentua arras tristea eta nostalgikoa iruditzen zait eta ez naiz inoiz joaten!».

Elizondoko Besta Komisioaren lana goraipatu nahi izan du: «kristoren lana egiten dute; kide gutti baldin badira ere, beti lortzen dute besta politak antolatzea eta kontzertu onak ekartzea». Zerbait hobetzekotan, «kuadrillen arteko lehiaketa edo jokoak egitea gustatuko litzaidake, gure artean harreman gehiago izateko». Izan ere, «Elizondon kuadrillak pisu handia du eta lagun talderik gabe ez duzu deus egitekorik. Hori pixka bat haustea gustatuko litzaidake».

Kartelaren diseinua

Bestak «beti bereziak» dira Goñi-rendako, eta aurtengoak gehiago, iruditeria diseinatzeaz arduratu baita. «Aisha laguna komisioan dago eta aipatu nion kartela egitea ametsa izanen litzatekeela niretako, eta aurten horretarako aukera eman didate berari esker».



Goñi bere kuadrillarekin eta Andoni Ollokiegirekin joan den urteko bestetan. UTZITAKOA

ESKISAROI

J A T E T X E A

T 948 580 013
Jaime Urrutia 40 31700 Elizondo
www.eskisaroi.eus

Ongi
pasa
bestak!

AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak, aldizkariak, prentsa, tabakoa eta testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Santiago • ELIZONDO • T: 948 581 507

Ongi pasa bestak!

BC BALLARENA

ERAIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA

Instalazio berriak | Berritzeak
Argindar fakturan aurreztu nahi?



delegatuak gara

LAN GUZTIETAZ ARDURATZEN GARA:

teilatuak, zaharberritzeak,
elektrizitatea, kalefakzioa,
pladur lanak, iturgintza, etab.



Mortero tematikoarekin fatxadak jantzi eta erabat itxuraldatzen ditugu aintzinako etxebizitzaren tradizioa mantenduz



Abartan, 22 behea ELIZONDO
T. 948 452 395 - M 647 688 988 / 647 688 982
www.ballarenaconstrucciones.com

lixue
GARBITEGIA

Ongi pasa bestak!

OSTALARITZARAKO ZERBITZUA
AUTOZERBITZUA

ORDUTEGIA
09:00-13:30
15:30-18:00

Santiago 94 - 96.
31700 Elizondo

621 264 404
info@lixue.eus

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13
BAZTAN

Pedro Axular karrika, 2 Elizondo

IRAKASLE NATIBOA

2026-2027 MATRIKULA IREKITA
Lehen Hezkuntza, DBH,
Batzilergoa (B1, B2) eta Helduak

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

RotuBaztan
Rotulación y diseño

ROTULOS

- Autoak errotulatzea • Lokalak errotulatzea
- Kristalak tindatzea • Seinaleak
- Arropa estanzazioa • Inprimatze digitala
- Bisita txartelak, albaranak, gutunak, etab.
- Eranskailuak eta kartelak personalizatzea
- Olanak • 3D-ko kartel argidunak

660 721 762
rotubaztan@gmail.com

Pol. Ind. Zaldubia 1. 31730 Irurita (Na)

Kartela diseinatzeko inspirazio iturri ugari izan ditu. «Alde batetik, gainerako urtetako kartelak begiratzan hasi nintzen, orain arte zer egin den eta zer ez ikusteko. Buruhandiek beti paper handia izan dute kartelean, baina erraldoiak, agertu badira ere, protagonismo ttikiagoa izan dutela iruditzen zitzaidan».

Bertze aldetik, «ingurukoei galdeztzen hasi nintzen haiendako zer diren Elizondoko bestak, eta denek erraten zuten gauza bera: elkartzeko aitzakia. Orduan neure buruari galdetu nion: non elkartzan da jendea bestetan? Erraldioen inguruan». Izan ere, «erraldoiak dauden lekuan dago besta, haiek dira beti dantzan hasten diren lehenbizikoak eta haien inguruan mugitzen da herri osoa».

Azaldu duenez, Elizondoko bi erraldoi zaharrak «elementu grafiko bezala arras indartsuak iruditzen zaizkit, eta bertze ikuspegi bat eman nahi nionez, goititik ikusita marraztu ditut. Izan ere, goititik ikusita ez dira barneko pertsonak ikusten; erraldoiek bizia hartzen dute.

Diseinua egiteko prozesua ere esplikatu du: «denbora aunitzik ez nuenez, hasieran tarte bat nuenean papera eta boligrafoa hartu eta marrazten hasten nintzen». Egindako marrazkiarekin kontent gelditu zenean, «diseinua ordenagailura pasatu eta bektorizatu egin nuen. Gero kolorea sartu nion eta azkenik letrak». Tipografia «arras inportantea da niretako, eta hainbertze aukeren artean zaila izaten da hautatzeko. Irakurtzeko erraza den zerbait nahi nuen».

Emaitzarekin «arras kontent» gelditu da: «orain arte egin ez den zerbait egin nahi nuen, desberdina eta minimalista izatea, eta uste dut lortu dudala».

Etorkizunera begira

«Momentua bizitzea» gustuko duela dio Goñik, «etorkizunean gehiegi pentsatu gabe. Oraingoz nire asmoa Madrilen lanean ongi ibiltzea eta ahal dudanetan bueltatzea da». Eta doike, «bestetan ongi pasatzea eta uda ahal bezain bertze disfrutatzea».

ELIZONDOKO

Uztailaren 24tik 28ra

BESTAK 2026

Elizondoko bi erraldoi zaharrenak dira aurtengo kartelaren protagonistak. ALAZNE GOÑI MATEO